

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko azaroaren 16an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

TOKIKO MERKATARITZA, ETA EKONOMIA JASANGARRIA ETA SOLIDARIOA BULTZATZEKO TOKIKO MONETA SOZIALAREN ERABILERARAKO DIRULAGUNTZA OINARRIEN ALDAKETA

Hernaniko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko otsailaren 16an egindako bilkuran, besteak beste, honako bi erabaki hauek hartu zituen:

1- Tokiko merkataritza, eta ekonomia jasangarria eta solidarioa bultzatzeko tokiko moneta sozialaren erabilerarako dirulaguntza oinarri arautzaileak onartzea.

2- Tokiko Moneta Sozialaren erabilerarako Lankidetza Dirulaguntza Hitzarmena onartzea, Ekhilur kooperatiba elkartearen alde.

Egun, aipatutako Lankidetza Dirulaguntza Hitzarmena indarrean dirau eta Ekhilur kooperatiba elkartea lanean ari da Hernaniko establezimenduen artean Ehki, Tokiko Moneta Sozialaren, egitasmoari buruzko informazioa ematen, proiektuaren kudeaketa egiten eta herritarren artean egitasmoa zabaltzen eta udal dirulaguntzak banatzen.

2023ko Urriaren 31ra arte, azken hilabetea izan ezik, ez da hilabete bakoitzeko ezarritako 20.000 euroko kreditua agortu. Aldea, guztira, 34.850,04 eurokoa dela.

Bestalde, hilabeteak aurrera egin ahala gero eta handiagoa da dirulaguntza hobarietan banatzen den kopurua, urrian mugara iritsi den arte.

Arriskua dago abenduan hilabete erdialdean kreditua agortzeko eta herritarren artean nahasmena sortzeko.

Ikusita, Udal Teknikariaren txostena.

Kontuan hartu da Tokiko Garapen Batzordeak 2023ko azaroaren 09ko bilkuran GEHIENGOZ emandako irizpena

Horiek horrela, hau erabaki da: **GEHIENGOZ**

Bakarra- Tokiko merkataritza, eta ekonomia jasangarria eta solidarioa bultzatzeko tokiko moneta sozialaren erabilerarako dirulaguntzen oinarri arautzaileetako 3.2 artikulua aldatzea testu hau gehituz: *urteko azken hilabetea, ordea, eta aurreko hilabetetako kredituan soberakina egongo balitz, kreditu hori handituko da. Urriaren 31ra arteko soberakin guztia batu eta azaroan transferituko dio Udalak erakunde kolaboratzaileari.*

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabete epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen

8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorriz

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Hernanin 2023ko azaroaren 16an

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa

Hernaniko udal-Idazkaria

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hzh@hernani.eus



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUa7cb0028-a891-4dbe-bc65-d367395f9cb7**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatze, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>